



EPE 2025 – BIGARREN HEZKUNTZA

GARRANTZITSUA: BEC-EN PROBAK EGITEKO AKREDITAZIOA. JARRAIBIDEAK

- Nahitaezkoa da akreditazioa/k eramatea (mugikorrean edo paperean).
- **Akreditazioa lortzeko bi modu daude:**

1) Whatsappeko mezua:

Irailaren 12an, hautagai bakoitzak mezu bat jasoko du mugikorrean (eskabidean adierazitakoa), whatsapp bidez, akreditazioa deskargatzeko.

Prozesuan jarraitzen duten izangaiei bidaliko zaie, programazio didaktikoa/unitate didaktikoa/ikaskuntza-egoera ez entregatzeagatik baztertutako pertsonen zerrenda argitaratu ondoren.

2) Web orrian argitaratuko den esteka:

Irailaren 12an Interneteko helbide bat gaituko da, eta bertan, inprimaki bat bete ondoren (NANA eta eskabide-zenbakia adierazita), akreditazioak deskargatu eta inprimatu ahal izango dira.

Eskaera-zenbakia gogoratzen ez baduzu, hemen kontsulta dezakezu: <http://www.hezigunea.euskadi.eus> -sartu «Erabiltzailea» eta «Pasahitza» – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» –2025 EPE. Bigarren Hezkuntza» – «Norberari egokitutako kontsultak» – «Eskaera-zenbakia»).

- Egiaztagiriak, QR kodeaz gain, proba hasteko pabiloia, zona, eguna eta ordua adieraziko ditu.
- Akreditazioa erakutsi beharko da pabiloira sartu aurretik, proba bakoitzerako sarrera-kontrola egiteko.
- Espezialitate batean baino gehiagotan eskaerak onartuta badaude, zenbat eskabide onartu diren, hainbat egiaztagiri bidaliko dira (edo web-orriko estekaren bidez lortuko dira).
- Akreditazioarekin arazorik izanez gero, joan 5. pabiloiko sarbideko informazio-puntura.